



AKTUALITATEA, HEMEN ETA KANPOAN

ABIAN DA 2030ERAKO EUSKADIKO EROSKETA BERDEAREN PROGRAMA BERRIA OSATZEKO LANA.

Euskadiko erosketaren berdearen programaren indarraldia aurten amaitzen da eta, hori dela eta, Ihobe, programaren idazkaritza teknikoa denez gero, hura ordezkatzeko duen plan berria osatzeko lanean ari da dagoeneko herritarren parte-hartzearen bidez. Berritasun bezala, plan horretan ez da sektore publikoko erosketak eta kontratazioak bakarrik jorratuko. Sektore pribatua ere kontuan hartuko da, enpresak merkatuko eragile bultzatzaile garrantzitsuak dira eta.

Informazio gehiago: compra.verde@ihobe.eus

EROSKETA BERDEA, BIODIBERTSITATEAREN ETA ELIKADURA-SISTEMA JASANGARRI BATEN ALDEKO EUROPAR BATASUNAREN ESTRATEGIETAKO TRESNA BAT.

EBk aitortzen du beharrezkoa dela biodibertsitatea sustatzea, gure ekosistemak babestea eta elikadura- eta nekazaritza-sistema jasangarri bat erdiestea gure ekonomia erresiliente eta klimaren aldetik neutroa izan dadin. Erosketa berdea lagungarri izan behar da prozesu horretan eta horregatik Europako Batzordeak honako hauek egitea aurreikusten du: 1) elikagai jasangarriak eskuratzeko nahitaez bete beharreko gutxienezko irizpide batzuk ezartzea -eta eredugarria izatea jabetzearen arloan egiten dituen kontratuetan-; eta 2) irizpideak definitzea naturan oinarritutako konponbideen erabilera sustatzeko, hots, naturan inspiratutako konponbide errentagarriak, onurak dakartzatenak ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloan eta erresilienteago izaten laguntzen dutenak.

«Natura gure bizitzetan berrintegratuz» estrategia: [\[+\]](#)

«Baserritik mahaira» estrategia: [\[+\]](#)

EROSKETA BERDEA MONITORIZATZEA ETA HAREN ONURAK ZENBATESTEAN ASIAKO ZENBAIT HERRIALDETAN

Erosketa berdearen ezarpena monitorizatuta eta haren ingurumen-onurak zenbatetsita hainbat onura lortzen dira, hala kudeaketaren aldetik nola maila politikoan. Asiako zenbait herrialde aitzindari dira lan horretan, eta berriki argitaratutako txosten batean bildu dira herrialde horietan ezarritako sistemak, onura horiek ezagutzera emateko, eta beste gobernu batzuk ere inspira daitezten eta sistema horiek ezar ditzaten.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)



TRESNAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK EUSKADIN

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ARLOKO AKATSEN GIDA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legean kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak non eta nola sartu jasotzen bada ere, praktikan zalantzak daude oraindik ere hori egiteko moduari dagokionez. Horren ondorioz akatsak egiten ditugu edo, akatsik egin gabe ere, lizitazioa zailtzen duten irizpideak definitzen ditugu. Argitalpen honen helburua da ohiko akats horietako batzuk aurkeztea eta nola saihestu daitezkeen azaltzea.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

JARDUNBIDE EGOKIA: EROSKETA TXIKI BERDEEN SISTEMATIZAZIOA ITELAZPIN

Jardunbide egoki honetan deskribatzen da nola sistematizatu duen Itelazpik Euskadiko erosketa eta kontratazio berdearen programako lehentasunezko produktu multzoen erosketa berdea, nahiz eta horiek gehienak erakundearentzako erosketa txikiak izan.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

PLEGUA/EREDUA: BERGARAKO 2030EKO AGENDA EGITEKO AHOALKULARITZA-ZERBITZUAK

Bergarako Udalak erosketa berdearen irizpideak txertatu ditu tokiko 2030 Agenda idazteko zerbitzua kontratatzeke ahoalkularitza-zerbitzuetan. Adibide erakusgarria da irizpide horiek benetako lizitazio batean nola txerta daitezkeen ikusteko.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (Ahoalkularitza-zerbitzuaren kapitulua)



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUZTEN LIZITAZIOETAN ESKAINTZAK AURKEZTEAN EGIN OHI DIREN AKATSAK, ETA HORIEK NOLA SAIHESTU

Irailaren 29an jardunaldi tekniko bat egingo da, sektore publikoko lizitazioetan parte hartzen duten enpresa eta erakundeei zuzenduta. Bertan, ingurumen-irizpideak dituzten eskaintzetan maizen egiten diren akatsak aurkeztuko dira alde batetik eta, bestetik, horiek saihestu eta eskaintza arrakastatsuagoak aurkezteko kontuan izan behar diren alderdi batzuk jorratuko dira.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)



ZENBAIT JARDUNALDI ETA EKITALDITAKO MATERIALAK ESKURAGARRI

Esteka hauetan Ihobek ekainean antolatu zituen erosketa berdeari buruzko hiru jardunaldietan erabili ziren materialak eskuratu ditzakezue:

- [Bizi-zikloaren kostuak ordenagailuen erosketan: garrantzia, enpresa lizitatzailentzako ondorioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jartzea.](#)
- [Ingurumen-klausulen jarraipena, ingurumen-irizpideak txertatu diren kontratu publikoen betearazpenean.](#)
- [Material birziklatuen aplikazioa azpiegituretan, proiektuaren eta obraren fasean.](#)

Horrez gain, Health Care Without Harm erakundeak antolatutako [«Towards plastic-free healthcare»](#) mintegiaren grabaketa eta aurkezpenak ere ikus ditzakezue.

Informazio gehiago: www.ihobe.eus/

Edozein iruzkin, ekarpen edo edukiari buruzko iradokizun egiteko, jo Ihobera:

- Telefonoa: **94 423 07 43**
- Helbide elektronikoa: compra.verde@ihobe.eus